

1. ERANSKINA:

**Ermuko egoera
soziolinguistikoari buruzko
ikerketaren laburpena**

ERMUKO UDALA

2004ko otsaila

SARRERA

- ▼ Dokumentu hau LKSk, Ermuko Udalaren eskariz, egin duen **ikerketaren laburpena** da.
- ▼ **Ikerketaren helburua** honakoa izan da: datu kuantitatibo eta kualitatibo batzuetatik abiatuta Ermuko egoera soziolinguistikoa aztertzea.
- ▼ Informazioa biltzeko, prozesatzeko eta aztertzeko honako **metodologia** erabili dugu: galdetegi semiestrukturatuan oinarritutako elkarrizketa pertsonalak egin ditugu. Guztira 400 inkesta bete ditugu ($e = \pm 5\%$, laginaren osotasunerako $95.5\% \ 2 \sigma$ erabiliz).
Kanpo lana urtarrilaren 31tik otsailaren 8ra burutu da.

Aurkibidea


1	Hizkuntza gaitasuna	4
2	Euskararen transmisioa	10
3	Euskararen erabilera	17
4	Euskararen sustapenaren inguruko jarrera eta iritziak	23
5	Euskararekiko jarrera	33
6	Hobetzeko iradokizunak	45

Informe honen lehenengo atal honetan Ermuko bizilagunen hizkuntza gaitasuna aztertuko dugu. Kasu honetan, hizkuntza gaitasuna, ermuarrek, alor honetan euren buruaz egiten duten definizioa da.

1.1 Hizkuntza gaitasunaren autodefinizioa

Euren buruaz ermuarrek egiten duten definizioan, ia erdiak, maila batean edo bestean, bere burua elebiduntzat jotzen duela ikus dezakegu (%45,8). Elebidun pasiboak kasuan zerbait ulertu eta zerbait mintzatzeko gai dira. Beraz, Ermuko biztanleriaren ia erdiak euskaraz ulertzen duela eta oinarritzko komunikazio bat euskaraz egin dezakeela esan dezakegu.

EAEko batez bestekoarekin konparatuz, Ermuko euskararen ezagutza maila baxuagoa dela nabarmendu behar dugu. Ermuko erdaldun elebakarren kopurua EAEko erdaldun elebakarren kopuruaren bikoitza da.



1. Grafikoa: P.1 Iksupuntu linguistiko batetatik nola definituko zinateke zu? Oinarria : 400 elkarrizketatu

Lehenengo analisi honetan sakondu asmoz, segmentazioen azterketa aurkeztuko dugu:

1.G. Hizkuntzaren ikuspegitik, zelan definitzen duzu zure burua?	TOTALA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	400	73	78	94	85	70
Euskaldun elebakarra	%0,80	%0,00	%1,30	%1,10	%0,00	%1,40
Elebiduna	%26,50	*%49,3	%29,50	%25,50	*%15,3	*%14,3
Elebidun pasiboa	%19,30	*%34,2	%24,40	%19,10	%12,90	*%5,7
Erdaldun elebakarra	%53,50	*%16,4	%44,90	%54,30	*%71,8	*%78,6

Sexua		Klase soziala			
Gizona	Emakumea	Behe klasea	Klase behe-ertaina	Klase ertaina	Goi klasea
206	194	162	140	81	17
%0,50	%1,00	%1,20	%0,00	%1,20	%0,00
%28,60	%24,20	*%16,7	%30,70	%29,60	*%70,6
%18,00	%20,60	*%13,6	%18,60	*%32,1	%17,60
%52,90	%54,10	*%68,5	%50,70	*%37,0	*%11,8

Adinari eta klase sozialari so eginez gero, taula horien irakurketa interesgarri batzuk egin ditzakegu: adibidez, biztanleak zenbat eta gazteagoak izan orduan eta handiagoa da elebidunen portzentajea eta klase soziala gero eta altuagoa izan elebidunen portzentajea ere gero eta handiagoa da.

1.G. Hizkuntzaren ikuspegitik, zelan definitzen duzu zure burua?	TOTALA	Jaioterria					
		Ermua	Bizkaia	EAE/Nafarroa	Gaztela -Leon	Galizia	Extremadura
	400	106	19	123	58	42	17
Euskaldun elebakarra	%0,80	%0,90	*%5,3	%0,80	%0,00	%0,00	%0,00
Elebiduna	%26,50	*%45,3	*%52,6	*%37,4	*%0,0	*%0,0	*%0,0
Elebidn pasiboa	%19,30	*%26,4	%31,60	%24,40	*%3,4	%11,90	*%0,0
Erdaldun elebakarra	%53,50	*%27,4	*%10,5	*%37,4	*%96,6	*%88,1	*%100,0

Jaioterriaren arabera elebidunen kopurua oso ezberdina da.

Ikasketa mailari so eginez gero, ikasketa maila gero eta altuagoa denean orduan eta altuagoa da elebitasun maila ere, elebidun aktiboak pasiboak baino gehiago izanik beti. Ikasketa maila baxuagoak dituztenen artean gehienak erdaldun elebakarrak dira.

1.G. Hizkuntzaren ikuspegitik, zelan definitzen duzu zure burua?	TOTALA	Ikasketa maila			
		Lehen mailako ikasketak	Batxilergoa/LH	Erdi mailako unib. ikask.	Goi mailako unib. ikask.
	400	195	143	22	36
Euskaldun elebakarra	%0,80	%0,50	%0,70	%0,00	%2,80
Elebiduna	%26,50	*%12,8	*%35,0	*%45,5	*%58,3
Elebidn pasiboa	%19,30	*%10,8	*%28,7	%27,30	%22,20
Erdaldun elebakarra	%53,50	*%75,9	*%35,7	*%27,3	*%16,7

Azken finean, aipagarria da biztanleria zaharrenaren artean EAetik kanpo jaiotakoen portzentajea handiagoa dela eta beraz, euskararen ezagutza maila baxuagoa dela. Era berean, kolektibo horretakoak gazte hasi ziren lanean (horixe da, hain zuzen, emigraziorako arrazoi nagusienetako bat) eta ondorioz, kasu gehienetan ikasketa maila ere baxuagoa da.




1. G. Hizkuntzaren ikuspegitik, zelan definitzen duzu zure burua?	TOTALA	Bizilekua						
		Gipuzkoako etorb.	Bizkaia etorb.	Hirigunea	Santa Ana	Zerukoa	Ongarai	San Pelaio
	400	37	36	146	17	25	34	51
Euskaldun elebakarra	%0,80	%0,00	%2,80	%0,70	%0,00	%0,00	%0,00	%2,00
Elebiduna	%26,50	%29,70	%25,00	%30,10	%35,30	*%8,0	%17,60	%21,60
Elebidn pasiboa	%19,30	%16,20	%19,40	%22,60	%35,30	%24,00	%20,60	*%5,9
Erdaldun elebakarra	%53,50	%54,10	%52,80	*%46,6	*%29,4	%68,00	%61,80	*%70,6

Bizilekua kontuan hartuta San Pelaio eta Zerukoko erdaldun elebakarren portzentajeak esanguratsuak dira, nabarmen, batez bestekoa baino altuagoak baitira.

1.2 Elebitasun maila

Bere burua elebiduntzat jotzen dutenen artean, gehiago dira gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutenak. Elebidunen ia erdia hobeto moldatzen da gaztelaniaz.



2. Grafikoa: P.1.2 Zure elebitasun maila sailka ezazu
Oinarria: 106 elebidun aktiboak

1.2. G. Elebidunen klasifikazioa	GUZTIRA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	106	36	23	24	13	10
Elebiduna euskara nagusi izanik	%20,80	%11,10	%21,70	%20,80	%7,70	*%70,0
Elebidun orekatua	%33,00	%27,80	%21,70	%41,70	%53,80	%30,00
Elebiduna gaztelania nagusi izanik	%46,20	*%61,1	%56,50	%37,50	%38,50	*%0,0

Adin taldeei dagokionez, gero eta gazteagoak izan orduan eta handiagoa da gaztelania nagusi duten elebidunen kopurua. Hau da, gazteenen artean elebidunak gehiago dira, baina elebidun horien artean gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutenak gehiengo dira.

Gizon eta emakumeei dagokionez, gaztelaniaz erraztasun handiagoa duten elebidunen portzentajea altuagoa da emakumeen artean.

Esanguratsua da klase ertain–altuan, gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutenak gehiengo direla modu esanguratsuan.


Sexua		Klase soziala			
Gizona	Emakumea	Klase baxua	Klase ertain baxua	Klase ertaina	Klase ertain altua
59	47	27	43	24	12
%18,60	%23,40	%18,50	%25,60	%20,80	%8,30
*%42,4	*%21,3	%40,70	%32,60	%33,30	%16,70
%39,00	%55,30	%40,70	%41,90	%45,80	*%75,0



Txostenaren bigarren atal honetan euskararen transmisioari so egingo diogu, elkarrizketatuaren lehen hizkuntza eta bere gurasoena aztertuz. Lehen hizkuntza moduan gaztelania izan eta euskara ikasi dutenek zein modutan ikasi duten ere aztertu dugu. Honela, euskara transmitzeko bideak eta horiek gaztelaniarekiko duten kokapena zehaztu dezakegu.

2.1 Elkarrizketatuaren lehen hizkuntza

Elkarrizketatuen ia hiru laurdenak gaztelania du lehen hizkuntzatzat (lehen hizkuntza: 0 eta 3 urte bitartean komunikazio bide nagusia da). Euskara bigarren postuan dago eta galiziar komunitateak Ermuan duen garrantzia dela-eta, biztanle batzuen lehen hizkuntza galegoa da.



3.Grafikoa. 3.G. Esango al didazu zein den zure ama hizkuntza ?
Oinarria : 400 elkarrizketatu

3.G. ¿Esango al didazu zein den zure lehen hizkuntza ?	GUZTIRA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	400	73	78	94	85	70
Euskara	%17,30	%12,30	%17,90	%23,40	%14,10	%17,10
Gaztelania	%72,80	%79,50	%76,90	%70,20	%67,10	%71,40
Biak (euskara eta gaztelania)	%3,80	%6,80	%3,80	%3,20	%2,40	%2,90
Galegoa	%6,30	%1,40	*%1,3	%3,20	*%16,5	%8,60


Euskararen atzerakada, lehen hizkuntza moduan, nabarmena da:

- **35 eta 45 urte** bitarteko biztanleriaren artean: %26
- **25 eta 34 urte** bitarteko biztanleriaren artean: %20
- **16 eta 24 urte** bitarteko biztanleriaren artean: %19

Azken adin talde horretan, **biztanleriaren ia %80ak** gaztelania du **lehen hizkuntzatzat**.

2.2 Aitaren ama -hizkuntza

Gure elkarrizketatuen aiten gehiengoak gaztelania du ama hizkuntzatzat. Euskara, gutxiengo baten ama hizkuntza da eta galegoak ia euskararen ehuneko antzekoak eskaintzen ditu.




4. Grafikoa: P.5.1 Esango al didazu zein den zure aitaren ama-hizkuntza?
Base : 400 elkarrizketatu



2.3 Amaren ama - hizkuntza

GaztelaniaK jarraitzen du izaten gehienek ama hizkuntza, baina euskerak aiten kasuan lortzen zuen baino portzentaje altuagoa lortzen du. Galegoak aldiz behera egiten du pixka bat.



5. Grafikoa: P.5.2 Esango al didazu zein den zure amaren ama-hizkuntza?
Base : 400 elkarrizketatu


2.4 Euskararen familia transmisioa

Euskararen irabaziak eta galerak kalkulatzeko, hurrengo grafikoan, inkesta egin diogunaren eta bere gurasoen ama hizkuntza konparatzen dira.

Erdal elebakarren artean, %26,8aren kasuan, gurasoetako batek lehen hizkuntza euskara izan du. Amen % 18,5%ak edo eta aiten %8,3ak euskara izan zuen lehen hizkuntzatzat.


Elebidunen pasiboan kasuan berriz, ehuneko hau %30,5era igotzen da. Hau da, elebidun pasiboan %30,5arentzat, gurasoetako batek euskara izan du lehen hizkuntzatzat.

Dena den, erantzun hauen egiazkotasuna frogatzea zaila gertatzen da. Izan ere, ez baita ziurtatzen gaur egun gurasoek euskara dakiten edo ez. Den den, datu hauek frogatuko balira, euskararen transmisioan emandako atzerapena benetan adierazgarria da.



2.5 Euskararen transmisio bideak

Gaztelania lehen hizkuntzatzat izan baina gaur egun elebidunak direnen artean (biztanleriarekiko %12), kasuen %77an, euskara, irakaskuntza arautuaren bidez ikasi dute. Emaitza horien arabera, irakaskuntza arautua da biderik eraginkorrena benetako elebitasun maila lortzeko.



5. Grafikoa: P.4. Euskaraz non ikasi duzu?

Oinarria : 35 elkarrizketatu ama hizkuntza gaztelania izanik eta gaur egun elebidun aktiboak direnak

3. G. Euskaraz non ikasi duzu?	GUZTIRA	Sexua		Klase soziala			
		Gizona	Emakumea	Klase baxua	Klase ertain - baxua	Klase ertaina	Klase ertain altua
	35	15	20	11	11	10	3
Ikasketa arautuak	%77,10	%66,70	%85,00	%72,70	%81,80	%80,00	%66,70
Euskaltegiak	%14,30	%13,30	%15,00	%9,10	%18,20	%10,00	%33,30
Nire kabuz (lagunak, bikotea ...)	%5,70	%13,30	%0,00	*%18,2	%0,00	%0,00	%0,00
Ed/Ee	%5,70	%13,30	%0,00	%9,10	%0,00	%10,00	%0,00


Generoa kontuan hartuta, emakumeek neurri handiagoan ikasi dute euskara irakaskuntza arautuaren bidez. Klase soziala kontuan harturik, gehienek irakaskuntza arautuaren bidez ikasi dute euskara eta beheko klasean dugu euskara beraien kabuz ikasi dutenen portzentaje altuena.

• **Batez ere, non hitz egiten dugu euskaraz?**

Orokorrean, portzentajeak nahiko baxuak dira. Euskaldun elebakarren kasuan ere, erabilera %70 baino txikiagoa da eta hurbileko ingurunean (merkatariak, lagunak, lankideak...) erabilera asko jaisten da.

Elebidunen artean ere erabilera baxua da. Erabilera beti %50 baino txikiagoa da eta familiaren baitan, (seme-alabak, bikotea...) erabilera %30 baino txikiagoa da. Euskara gehien gurasoekin, anai-arrebeekin eta bankuarekin erabiltzen da.

Elebidun hartzaileen kasuan, euskararen erabilera oso txikia da eta gehienbat beraien seme-alabekin eta seme-alaben irakasleekin erabiltzen dute.




8. Grafikoa: 6.G ¿Zein hizkuntza erabiltzen duzu batez ere izendatuko dizkizudan alorretan?
Oinarria : 186 elkarrizketatu, euskaldun elebakarrak, elebidunak eta elebidun pasiboak

• **Batez ere, non hitz egiten dugu euskaraz eta gaztelaniaz?**

Familian komunikatzeko normalean hizkuntza bakarra erabili ohi da. Bi hizkuntzak batera erabiltzen dituztenen portzentajea oso txikia da.

Ermuarrek gaztelaniaz nahiz euskaraz hitz egiten dute; batez ere, merkatariekin, lagunekin eta beste senideekin.


Elebidun hartzaileek garrantzi berezia dute kasu honetan eta beraien parte hartzeak erabilera modu esanguratsuan areagotzen du aurreko kasuarekiko.



9. Grafikoa: 6.G. ¿Zein hizkuntza erabiltzen duzu batez ere, aipatuko dizkizudan alor hauetan? Oinarria : 186 elkarrizketatu, euskaldun elebakarrak, elebidunak eta elebidun pasiboak.


• Batez ere, non erabiltzen dugu gaztelania euskara jakin arren?

Portzentaje hauek altuenak dira. Izan ere, argi dago Ermuan batez ere, gaztelaniaz hitz egiten dela. Euskal hiztunen artean ere, normala da gaztelania erabiltzea honako eremu hauetan: familia, osasun zerbitzuak edo udalean. Eremu horietan, euskara jakin arren %50ak, gutxi gorabehera, gaztelania erabiltzen du.



10. Grafikoa: 6.G. ¿Zein hizkuntza erabiltzen duzu batez ere, aipatuko dizkizudan alor hauetan?
Oinarria : 186 elkarrizketatu, euskaldun elebakarrak, elebidunak eta elebidun pasiboak.

• Hizkuntza gaitasuna kontuan hartu gabe, zein da eremu bakoitzean gehien erabiltzen den hizkuntza?




11. Grafikoa: 6.G ¿Zein hizkuntza erabiltzen duzu, batez ere, aipatuko dizkizudan alor bakoitzean?
Oinarria : 400 elkarrizketatu

Ermuan, ermuarren bizitzaren edozein eremutan gaztelania da nagusi. Biztanleen euskararen ezagutza kontuan hartu gabe gaztelaniaren erabilera nabarmena da. Ermuarrek, normalean, gaztelania erabiltzen duten eremuen artean lehen eta bigarren postuan erakunde publikoak daude: Udala eta osasun zerbitzuak. Eremu horietan, kasuen %80an gehienbat gaztelania erabiltzen da.

Euskarari dagokionez, gehienbat, familian erabiltzen da. Hala ere, erabilera hori ez da %15era iristen.





Jarrera eta iritziak euskararen sustapenarekiko.


Atal honetan, euskararen sustapenarekiko hiritarren iritziak eta jarrerak aurkeztuko ditugu. Era berean, udalak euskara sustatzeko egindako ekintzen inguruko herritarren iritziak ere neurtu ditugu.

4.1 Euskararen sustapenarekiko jarrera

Elkarrizketatuen ia %90ak, herrian euskara sustatzearekiko aldeko edo oso aldeko jarrera du.

Gainerako %10k jarrera neutrala edo aurkakoa du.

EAEko datuekin konparatuz gero, datu positiboa da hori. Izan ere, EAEn biztanleriaren %16ak aurkako jarrera du.



20. GRAFIKOA: 7.G ¿Zer iritzi duzu Ermuan Euskara sustatzeari buruz?
Oinarria : 400 elkarrizketatu




EUSKARAREN SUSTAPENAREKIKO JARRERA, EZAGUTZAREN ARABERA


Bistan denez, elkarrizketatuek euskararen sustapenarekiko duten jarrera eta hizkuntza ezagutzaren artean lotura zuzena dago.

Honela, euskararen ezagutzak behera egiten duen heinean sustapenarekiko aurkako jarrera eta jarrera neutrala gero eta garrantzitsuagoak bihurtzen dira.


Euskaldun elebakarren jarrera




Elebidunen jarrera



Elebidun hartzaileen jarrera




Erdaldun elebakarren jarrera



4.2 Lehentasunezko eremuak euskararen sustapenean elkarrizketatuen arabera

Elkarrizketatuen arabera irakaskuntzak, sustatu beharreko eremuen artean, lehentasuna du. *Irakaskuntza* kontzeptuak bere baitan ikastolentzako, eskola publikoentzako, euskaltegientzako dirulaguntzak... kontuan hartzen ditu.

Bigarren lekuan, familia agertzen da, bertatik euskara sustatu daitekeeneko gune moduan. Jarraian, oso gertu, aisiarekin zerikusia duten jarduerak ditugu. Azken kasu horri dagokionez, badirudi, elkarrizketatuak haur eta gazteen jardueretaz ari direla, euskara ikasgeletatik atera asmoz eta jolas jarduerekin lotuz, kalean bultzada garrantzitsu eta normalizatua eman nahian bezala.



21. Grafikoa: 8.G ¿Zein alor lehenetsiko zenituzke Ermuako euskararen promozioan? Oinarria : 400 elkarrizketatu



8.G ¿Zein alor lehenetsiko zenituzke Ermuko Euskararen promozioan?	TOTAL	Adiña				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 edo gehiago
	400	73	78	94	85	70
Hezkuntza	89,50%	86,30%	88,50%	90,40%	88,20%	94,30%
Familia	42,50%	43,80%	44,90%	41,50%	37,60%	45,70%
Aisia eta denbora librea	38,30%	*50,7%	38,50%	36,20%	29,40%	38,60%
Kirol federatua	7,50%	11,00%	6,40%	5,30%	9,40%	5,70%
Kultura	38,30%	30,10%	33,30%	42,60%	45,90%	37,10%
Hedabide lokalak	21,30%	*31,5%	24,40%	19,10%	21,20%	*10,0%
Lan alorra	25,00%	30,10%	25,60%	23,40%	25,90%	20,00%
Administrazioa	22,50%	*9,6%	29,50%	26,60%	25,90%	18,60%
Ed/Ee	2,30%	1,40%	0,00%	3,20%	2,40%	4,30%

8.G ¿Zein alor lehenetsiko zenituzke Ermuko Euskararen promozioan?	Sexua	
	Gizon	Emakume
	206	194
Hezkuntza	90,80%	88,10%
Familia	42,70%	42,30%
Aisia eta denbora librea	34,50%	42,30%
Kirol federatua	8,30%	6,70%
Kultura	34,00%	42,80%
Hedabide lokalak	21,80%	20,60%
Lan alorra	23,80%	26,30%
Administrazioa	*28,2%	*16,5%
Ed/Ee	2,40%	2,10%

- Deigarria iruditu zaigu honako emaitza: gazteenek, modu esanguratsuan, lehentasuna herri komunikabideetan jarriko luketen bitartean, nagusiagoek bere lehentasunen artean, modu esanguratsuan, batez bestekoaren azpitik jarriko lituzketela.
- Gazteenek, naturala den moduan, lehentasuna modu esanguratsuan eta portzentaje altu batez, euskarazko aisialdian jarriko lukete eta ez administrazioan.

- Gizon nahiz emakumeek irakaskuntzaren lehentasuna nabarmentzen dute eta aldi berean, administrazioan lehentasuna jartzea ere garrantzitsua dela adierazi dute.




8.G ¿Zein alor lehenetsiko zenituzke Ermuko Euskararen promozioan?	TOTALA	Ikasketa maila			
		Lehen mailako ikasketak	Batxillergo/FP	Unib. ertaina	Goi mailako unib.
	400	195	143	22	36
Irakaskuntza	89,50%	92,30%	88,10%	86,40%	80,60%
Familia	42,50%	45,10%	44,10%	36,40%	30,60%
Aisialdia	38,30%	37,40%	37,80%	40,90%	41,70%
Kirol federatua	7,50%	7,70%	7,00%	4,50%	11,10%
Kultura	38,30%	37,90%	33,60%	40,90%	52,80%
Komunikabide lokalak	21,30%	*16,9%	*28,0%	*40,9%	*8,3%
Lan esparrua	25,00%	24,10%	28,00%	22,70%	19,40%
Administrarritza	22,50%	*17,9%	22,40%	22,70%	*44,4%
Ed/Ee	2,30%	3,10%	2,10%	0,00%	0,00%

- Ikasketa mailaren kasuan aurrekoetan emandakoa errepikatzen da; irakaskuntza, familia eta aisialdiaren garrantzia nabarmena da.
- Unibertsitario ertainek eta batxillerrek lehentasuna ematen diote komunikabide lokalei. Goi mailako unibertsitario eta lehen mailako ikasketak dituztenak aldiz, batezbestekoaren azpitik agertzen dira modu esanguratsu batean.
- Administrazioa esanguratsuki garrantzitsua da goi mailako unibertistariarentzat, lehen mailako ikasketak dituztenentzat aldiz aldagai hau ez da hain garrantzitsua.




Lehentasunezko eremuak euskararen, ezagutza mailaren arabera.



- Euskararen ezagutzaren arabera lehentasunezko esparruen artean ezberdintasunak antzematen dira. Irakaskuntza, ezagutza maila guztietarako, lehentasun handiena duen eremua da. Euskara dakitenentzako lan munduak eta administrazioak garrantzi handiagoa dute eta euskararen ezagutza baxuagoa dutenentzako garrantzitsuagoak dira familia, aisia, aisialdia eta kultura.

4.3 Euskara sustatzeko udalak egindako ahaleginaren balorazio orokorra.

Elkarrizketatuek ez dute oso modu positiboan baloratzen Udalak euskara sustatzeko egindako ahalegina: ez direlako egin edo egin arren, herritarrek "ikusteko" modukoak izan ez direlako.




22. Grafikoa: 9.G Baloratu orokorrean (0 a 10) Ermuko Udalak egiten duen esfortzua Euskararen sustapenean
Oinarria : 400 elkarrizketatu

Udalaren balorazioa euskararen ezagutzaren arabera

Aurkezten dugun grafiko hori oso esanguratsua da: euskararen ezagutza maila gero eta handiagoa, orduan eta udalarekiko balorazio kaxkarragoa.

Soilik, erdaldun elebakarren kolektiboak ematen dizkio bost puntu baino gehiago udalaren ahaleginari.



23. Grafikoa: 9.G Baloratu orokorrean (0 a 10) Ermuko Udalak egiten duen esfortzua Euskararen sustapenean
Oinarria : 400 elkarrizketatu

9G Baloratu orokorrean (0-10) Ermuko udalak egindako esfortzua euskararen promozioan	GUZTIRA	Adiña				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 edo gehiago
	375	68	75	84	79	69
	4,8	4,3	4	4,5	4,7	6,8

Sexua		Klase soziala			
Gizon	Emakumea	Behe klasea	Behe-erdi klasea	Klase ertaina	Ertain-goi klasea
193	182	149	134	75	17
4,5	5,1	4,8	5	4,9	3,7

Jaioterrria					Ikasketa maila			
Ermua	Bizkaia	EAE/Nafarroa	Gaztela-Leon	Galizia	Lehen mailakoak	Batxiller/LH	Erdi mailako unib. ikasketak	Goi mailako unib. ikasketak
102	19	113	56	38	181	133	21	36
4,1	4,3	4,3	5,8	5,9	5,5	4,2	4,4	4


- Normalean gertatu ohi den bezala adineko gizabanakoek modu positiboagoan baloratu ohi dute.
- Gizon eta emakumeen artean, emakumeek ontzat ematen dute (5 puntu baino gehiago) udalaren ahalegina.
- Klase sozialari dagokionez eta normalean gertatu ohi den bezala, klasea altuak balorazio negatiboagoak eman ohi ditu. Gainera kasu honetan, baliteke klase hau kritikoagoa izatea, lehen ikusi dugun moduan klase sozial gero eta altuagoetan euskalduntze maila ere altuagoa baitzen.
- Jaioterriaren arabera, puntuaketa altuagoa da EAetik kanpo jaiotakoen aldetik. Baliteke kanpoan jaiotakoak alderdi honetan hain kritikoak ez izatea.
- Formazio maila baxuena dutenak puntuaketa altuagoak eman ohi dituzte eta ikasketa maila altuena dutenak puntuaketa baxuenak eman ohi dituzte.



4.4 Udalak euskara sustatzeko egindako jardueren balorazioa

Hobekien baloratutako jarduerak aisiarekin, hizkuntza paisaiarekin eta jarduera kulturaletan euskara erabiltzearekin zerikusia duten jarduerak dira.

Balorazio orokorra oso positiboa ez bazen ere, balorazio zehatzago batek alderdi positiboagoak agerian uzten ditu.




23. Grafikoa: 10G Baloratu (1etik 5era) udalak burututako jarduerak euskararen promozioan
Oinarria : 400 elkarrizketatu

5.1 Euskararen ezagutza hobetzea.

Elkarrizketatuen gehiengo zabal batek ez du bere euskararen ezagutza hobetzeko inolako jarduerarik egiten.

Soilik, %8,3ak dio bere euskara hobetzeko ahaleginen bat egiten duela. Horietatik %4,5ak bere kabuz ikasten du euskara. "Bere kabuz" kontzeptua oso zabala izan daiteke eta kontzeptu horren bidez ikaskuntza lan zehatz batetik hitz batzuk euskaraz esateko borondateraino adierazi daiteke.



24. Grafikoa: 11.G ¿Euskararen ezagutza gehitzeko une honetan jardueraren bat egiten ari zara?
Oinarria : 291 erdal elebakar eta elebidun hartzaileak

5.2 Euskararen ezagutza areagotzeko gogoia

Elkarrizketatuen %60 bere euskararen ezagutza areagotzeko prest dago.



25. Grafikoa: 12.G ¿Euskararen ezagutza gehitzek prest zeundeke?
Oinarria : 291 erdal elebakar eta elebidun hartzaileak

P.12. Euskararen ezagutzan aurrera egiteko prest zaude ?	GUZTIRA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	291	37	54	69	72	59
Bai	58,40%	*78,4%	*81,5%	*78,3%	*41,7%	*22,0%
Ez	41,20%	*21,6%	*16,7%	*21,7%	*58,3%	*78,0%
Ed/Ee	0,30%	0,00%	*1,9%	0,00%	0,00%	0,00%

Klase soziala				Jaioterria				
Klase baxua	ase baxu ertair	Klase ertaina	Klase ertain altua	Ermua	Bizkaia	EAE/Nafarroa	Gaztela - Leoi	Galizia
133	97	56	5	57	8	76	58	42
56,40%	58,80%	60,70%	80,00%	*78,9%	62,50%	*73,7%	*34,5%	*40,5%
42,90%	41,20%	39,30%	20,00%	*19,3%	37,50%	*26,3%	*65,5%	*59,5%
0,80%	0,00%	0,00%	0,00%	*1,8%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%

- Tauletan adierazten den moduan, 50 urtetik gora edozein ikasketa burutzeko borondatea nabarmenki jeisten da.
- Klase sozialaren arabera ere, hau zenbat eta altuagoa izan, euskara ikasteko borondatea orduan eta aldekoagoa da.
- Jaioterrietan oinarrituz, EAEn/Nafarroan jaiotakoak jarrera irekiagoa dute euskara ikasterako orduan Gaztela Leoi edo Galizian jaiotakoekin alderatuta.

P.12. Euskararen ezagutzan aurrera egiteko prest zaude ?	TOTAL	Ikasketa maila			
		Lehen mailakoak	LH/Batxiler	Uniberts. Ertainak	Goi mailako Uniberts.
	291	169	92	12	14
Bai	58,40%	*49,1%	*76,1%	41,70%	78,60%
Ez	41,20%	*50,9%	*23,9%	50,00%	21,40%
Ed/Ee	0,30%	0,00%	0,00%	*8,3%	0,00%

Bizilekua						
Bizkaia etorbidea	Hirigunea	Santa Ana	Zerukoa	Ongarai	San Pelaio	Gipuzkoako etorbidea
26	101	11	23	28	39	26
65,40%	52,50%	72,70%	65,20%	60,70%	61,50%	61,50%
34,60%	47,50%	27,30%	34,80%	35,70%	38,50%	38,50%
0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	*3,6%	0,00%	0,00%

- Ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan euskara ikasteko borondatea orduan eta handiagoa dela nabarmentzen da. Lehen mailako ikasketak dituztenen artean esanguratsua da euskara ikasteko borondate eza.




5.3 Euskararen ezagutza hobetzeko arrazoiak

Elkarrizketatuen %42ak bertako hizkuntza delako ikasi nahi omen du euskara. %37ak aldiz, euskara ikasiz bere harreman sozialak hobetu nahi dituela dio.

Beraz, euskara ikasteko arrazoi nagusienak kulturalak dira eta bigarren maila batean, arrazoi sozialak aipatuko genituzke.

Euskara ikasteko arrazoi garrantzitsuenen artean laneko arrazoiak hirugarren lekuan daude.



26. Grafikoa: 13.G ¿Zergaitik hobetuko zenituzke zure ezagutzak?
Oinarria: euskara hobetuko luketeen 170 elkarrizketatu

P13 Zergatik hobetu nahi duzu zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	170	29	44	54	30	13
Lan Arrazoiengatik	20,60%	*41,4%	22,70%	16,70%	*6,7%	15,40%
Harreman sozialak errazteko	31,20%	31,00%	31,80%	31,50%	30,00%	30,80%
Bertako hizkuntza delako	42,40%	55,20%	45,50%	38,90%	40,00%	23,10%
Seme-alaba/biloba/bikotekidearekin hitz egiteko	10,00%	*0,0%	*20,5%	13,00%	3,30%	0,00%
Gustatzen zaidan hizkuntza bat da hitzegiteko	6,50%	0,00%	6,80%	9,30%	3,30%	15,40%
Asetasun pertsonala	5,30%	3,40%	4,50%	5,60%	6,70%	7,70%
Nire familiak euskaraz hitz egiten du	1,80%	3,40%	0,00%	0,00%	*6,7%	0,00%
Ona da denerako	1,80%	0,00%	0,00%	3,70%	3,30%	0,00%
Beste bat	7,10%	0,00%	6,80%	9,30%	6,70%	15,40%
Ed/Ee	0,60%	*3,4%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%

- 50 urtera bitarte, euskara ikasteko arrazoi nagusia kulturala da, “bertako hizkuntza delako” ikasiko lukete. Dena dela, 25-34 bitartean lan arrazoiak ere garrantzia hartzen dute.
- Seme-alabekin hitzegitea esanguratsuki garrantzitsua da guraso gazteentzat. Aldiz, 50-64 artean lan arrazoiak garrantzia galtzen dute eta baita familiak euskara erabiltzearen arrazoiak ere.

P13 Zergatik hobetu nahi duzu zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Klase soziala			
		Klase baxua	ase baxu ertain	Klase ertaina	Klase ertain altua
	170	75	57	34	4
Lan Arrazoiengatik	20,60%	17,30%	24,60%	23,50%	0,00%
Harreman sozialak errazteko	31,20%	29,30%	29,80%	38,20%	25,00%
Bertako hizkuntza delako	42,40%	48,00%	35,10%	41,20%	50,00%
Seme-alaba/biloba/bikotekidearekin hitz egiteko	10,00%	12,00%	12,30%	2,90%	0,00%
Gustatzen zaidan hizkuntza bat da hitzegiteko	6,50%	9,30%	5,30%	0,00%	25,00%
Asetasun pertsonala	5,30%	5,30%	5,30%	5,90%	0,00%
Nire familiak euskaraz hitz egiten du	1,80%	1,30%	1,80%	2,90%	0,00%
Ona da denerako	1,80%	2,70%	1,80%	0,00%	0,00%
Beste bat	7,10%	8,00%	1,80%	11,80%	25,00%
Ed/Ee	0,60%	0,00%	1,80%	0,00%	0,00%

P13 Zergatik hobetu nahi duzu zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Jaioterria				
		Ermua	Bizkaia	EAE/Nafarroa	Gaztela - Leoi	Galizia
	170	45	5	56	20	17
Lan Arrazoiengatik	20,60%	28,90%	20,00%	19,60%	15,00%	17,60%
Harreman sozialak errazteko	31,20%	28,90%	0,00%	35,70%	30,00%	41,20%
Bertako hizkuntza delako	42,40%	42,20%	40,00%	39,30%	40,00%	35,30%
Seme-alaba/biloba/bikotekidearekin hitz egiteko	10,00%	11,10%	20,00%	12,50%	0,00%	11,80%
Gustatzen zaidan hizkuntza bat da hitzegiteko	6,50%	4,40%	20,00%	5,40%	0,00%	*17,6%
Asetasun pertsonala	5,30%	4,40%	20,00%	8,90%	0,00%	0,00%
Nire familiak euskaraz hitz egiten du	1,80%	0,00%	0,00%	3,60%	5,00%	0,00%
Ona da denerako	1,80%	0,00%	*20,0%	1,80%	0,00%	0,00%
Beste bat	7,10%	6,70%	0,00%	7,10%	10,00%	0,00%
Ed/Ee	0,60%	2,20%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%

- Klase sozialari dagokionean, goi mailako klaseek bertako hizkuntza denaren arrazoi kulturalari ematen diote garrantzia.
- Jaioterrien arabera aurreko kasuetako tendentzia berdina ematen da. Hauetaz aparte, galegoek euskara hitz egiteko gustatzen zaien hizkuntza bat dela adierazten dute eta bizkaitarrek esanguratsuki uste dute orokorrean ona dela.




P13 Zergatik hobetu nahi duzu zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Ikasketa maila			
		Lehen mailako ikasketak	Batxilergo/FP	Unibertsitari ertaina	Goi mailako unibertsitaria
	170	83	70	5	11
Lan Arrazoiengatik	20,60%	*12,0%	25,70%	*80,0%	27,30%
Harreman sozialak errazteko	31,20%	28,90%	34,30%	20,00%	36,40%
Bertako hizkuntza delako	42,40%	41,00%	42,90%	40,00%	45,50%
Seme-alaba/biloba/bikotekidearekin hitz egiteko	10,00%	12,00%	8,60%	20,00%	0,00%
Gustatzen zaidan hizkuntza bat da hitzegiteko	6,50%	8,40%	4,30%	0,00%	9,10%
Asetasun pertsonala	5,30%	7,20%	2,90%	0,00%	9,10%
Nire familiak euskaraz hitz egiten du	1,80%	2,40%	1,40%	0,00%	0,00%
Ona da denerako	1,80%	2,40%	1,40%	0,00%	0,00%
Beste bat	7,10%	8,40%	5,70%	0,00%	9,10%
Ed/Ee	0,60%	0,00%	1,40%	0,00%	0,00%

- Erdi mailako unibertsitariak lan arrazoiei garrantzia berezia ematen die. Lehen mailako ikasketak dituztenek berriz garrantzia gutxiago ematen die arrazoi honi.

5.4 Euskararen ezagutza ez hobetzeko arrazoiak.

Ermuarrek euskara ez ikasteko erabiltzen duten arrazoi nagusia adinarena da. Bigarren arrazoa euskararen berezko zailtasunarena da.

Ikasi nahi ez dutenen %20ak arrazoi moduan honakoa aipatzen du: ez dela beharrezkoa.



27. Grafikoa: 13.G ¿Zergaitik ez zenuke hobetuko zure euskararen ezagutza?
Oinarria : Euskara hobetuko ez luketen 120 elkarrizketatu

P13 Zergatik ez duzu hobetu nahi zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	120	8	9	15	42	46
Zailtasunagatik	27,50%	25,00%	11,10%	20,00%	26,20%	34,80%
Ez dut beharrezkoa ikusten	20,00%	0,00%	44,40%	*40,0%	21,40%	*10,9%
Beste lehenetasun batzuk ditut	3,30%	12,50%	0,00%	*13,3%	2,40%	0,00%
Denbora falta	12,50%	*37,5%	*33,3%	26,70%	11,90%	*0,0%
Adinagatik	39,20%	*0,0%	*0,0%	*6,7%	33,30%	*69,6%
Ez zait interesatzen	3,30%	12,50%	11,10%	0,00%	2,40%	2,20%
Motibazio falta	5,00%	*25,0%	0,00%	6,70%	4,80%	2,20%
Bestelakoak	5,80%	0,00%	11,10%	0,00%	7,10%	6,50%

- Gazteak motibazio falta eta denbora falta adierazten dute euskara ez ikasteko arrazoi gisa. 35 eta 50 urte tartean daudenak berriz, esanguratsuki adierazten dute euskara ikasteko beharrik eza. Nagusien artean eta logikoa dirudenez, adina da arrazoi nagusia, dena den, beharrezkoa ikusten dute, hauen portzentajea batezbestekoaren azpitik agertzen baita esanguratsuki.

P13 Zergatik ez duzu hobetu nahi zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Klase soziala				
		Klase baxua	ase baxu ertair	Klase ertaina	Klase ertain altua	
	120	57	40	22	1	
Zailtasunagatik	27,50%	33,30%	17,50%	31,80%	0,00%	
Ez da beharrezkoa ikusten	20,00%	21,10%	20,00%	18,20%	0,00%	
Beste lehentasun batzuk	3,30%	1,80%	2,50%	9,10%	0,00%	
Denbora falta	12,50%	8,80%	17,50%	13,60%	0,00%	
Adinagatik, nagusia da	39,20%	35,10%	*52,5%	27,30%	0,00%	
Ez zaio gustatzen, ez zaio interesatzen	3,30%	5,30%	0,00%	4,50%	0,00%	
Motibazio falta	5,00%	5,30%	2,50%	4,50%	*100,0%	
Bestelakoak	5,80%	5,30%	7,50%	4,50%	0,00%	

- Atal honetan ondokoa nabarmendu daiteke; Klase sozial altuetan pertsona bakarra agertzen dela euskara ikastearen aurka. Erdi mailako klase sozialak adina adierazten du ez ikasteko arrazoi nagusitzat.

P13 Zergatik ez duzu hobetu nahi zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Jaioterrria				
		Ermua	Bizkaia	EAE/Nafarroa	Gaztela - Leoi	Galizia
	120	11	3	20	38	25
Zailtasunagatik	27,50%	9,10%	0,00%	35,00%	28,90%	20,00%
Ez da beharrezkoa ikusten	20,00%	36,40%	33,30%	15,00%	18,40%	20,00%
Beste lehentasun batzuk	3,30%	0,00%	0,00%	5,00%	2,60%	0,00%
Denbora falta	12,50%	*36,4%	33,30%	25,00%	10,50%	*0,0%
Adinagatik, nagusia da	39,20%	18,20%	0,00%	*15,0%	39,50%	*68,0%
Ez zaio gustatzen, ez zaio interesatzen	3,30%	9,10%	0,00%	5,00%	5,30%	0,00%
Motibazio falta	5,00%	0,00%	*33,3%	5,00%	7,90%	0,00%
Bestelakoak	5,80%	0,00%	0,00%	0,00%	7,90%	0,00%

- Ermuan jaiotakoek denbora falta aipatzen dute euskara ez ikasteko arrazoi esanguratsua gisa. EAE/Nafarroan jaiotakoek esaten dute ez daukatela ikasteko motibaziorik eta Galizian jaiotakoak nagusiegiak direla uste dute ikasten hasteko.




P13 Zergatik ez duzu hobetu nahi zure euskararen ezagutza ?	GUZTIRA	Ikasketa maila			
		Lehen mailako ikasketak	Batxillergo/FP	Inibertsitari ertain	Goi mailako unibertsitaria
	120	86	22	6	3
Zailtasunagatik	27,50%	30,20%	13,60%	33,30%	33,30%
Ez da beharrezkoa ikusten	20,00%	18,60%	27,30%	33,30%	0,00%
Beste lehentasun batzuk	3,30%	2,30%	0,00%	*33,3%	0,00%
Denbora falta	12,50%	*4,7%	*31,8%	33,30%	*66,7%
Adinagatik, nagusia da	39,20%	*47,7%	*18,2%	*0,0%	0,00%
Ez zaio gustatzen, ez zaio interesatzen	3,30%	*1,2%	*13,6%	0,00%	0,00%
Motibazio falta	5,00%	5,80%	4,50%	0,00%	0,00%
Bestelakoak	5,80%	7,00%	4,50%	0,00%	0,00%

- Lehen mailako ikasketak dituztenentzat adina da euskara ez ikasteko arrazoi nagusia. FP/Batxillergo maila dutenek berriz denbora falta aipatzen dute, nagusiegiak ikusten dira eta gainera, ez zaie interesatzen. Unibertsitari ertainek berriz, esanguratsuki adierazten dute beste lehentasun batzuk dituztela. Goi mailako ikasketak dituztenei denbora falta zaie.

%21,5arentzat beharrezkoa da euskara ikasteko kurtsoak diruz laguntzea, dirulaguntzak ematea...

Euskarazko jarduera kulturalak sustatzea da Ermuako biztanleen beste eskari garrantzitsuenetako bat.

Hirugarren talde batek euskara kurtsoak eskatzen ditu, diruz lagunduak, kolektibo zehatzentzako... izan behar duten zehaztu gabe.



28. Grafikoa: 15. G. ¿Euskara sustatzeko zein jarduera burutu beharko litzuzke udalak?
Oinarria : 400 elkarrizketatu

Jarraitzen du...

